

PARTEHARTZERAKO DEIALDIAK

EHZ

herri bat zuzenean

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN
kontakt@festival-ehz.com - [+33] (0)559702008

Editoriala:

EHZk 3 dei luzatzen ditu bere proiektuetan parte hartzeko .. 3

En détail:

1. deia : EHrZ lehiaketa..... 5
2. deia : Sorgin proiektua 6
3. deia : Sormen grafikoak 7

Kontaktu guziak 8

EHZk 3 dei luzatzen ditu bere proiektuetan parte hartzekoa

2010ean arazo meteorologikoak izan arren, publiko, laguntzaile, partaide eta artistei esker, 2011an Festibala berriz ere hor izanen da Heletan uztailaren 1,2 eta 3an. Baina hori baino lehen, elkarteak 3 dei luzatzen ditu publikoarekin elkarlanean segitzeko. Sorkuntza grafikoak, EHrZ musika lehiaketa, sorkuntza artistiko ibiltaria... Hainbat aukera festibalarientzat aktore izaiteko.

Aurten, laguntzaileek hautatu duten lema irudikatzeko elkarteak eramaten duen lana, "EHZ, Mugetatik'at" (EHZ, au-delà des frontières) da. Bultzatutako proiektuekin, muga guziak gainditzeko desafioa ematen dio bere buruari EHZk (politiko, sinboliko, kulturala, mentala, belaunaldi artekoa...).

"EHZ, Mugetatik'at"

EHrZ: Diska industriak sortzen dituen mugetatik 'at

EHrZ lehiaketari esker, berriz ere 2011an Euskal Herriko gazte taldeek parada ukanen duten haien musika ezagutarazteko. Oroitarazi behar da iaz ezagutu duen arrakasta; hala nola Eukal Herriko 60 taldek parte hartu zuten. Uneko musikaren munduko aktorez eta publikoaz osatutako epaimahi batek hautatuko ditu Atabalean joko duten 3 taldeak baildintza egokienetan. Kanaldudeko bideo grabaketari esker, talde bakotxak ukanen du bere kontzertuko grabaketa bat. Irabazleak Festibalaren 16garren edizioan joko du. Lehiaketa horren bidez, EHZk diska industriatik urrun diren Eukal Herriko talentu musikal berriak bultzatu nahi ditu edozein estilokoak izanik ere: Rock, rap, reggae, elektro, metal...

[Sor-gin]: Sorkuntza artistikoaren mugetatik'at

Ez baita beti erres sorkuntza berri bat egitea Euskal Herrian, EHZk SORGIN proiektua eramanen du gazte sortzaileak laguntzeko: dantzari nahiz aktore, ibiltari,... SORGIN hitza, "SORTU" eta "EGIN" aditzen arteko batuketatik heldu da. Proiektu horrek urtero sorkuntza berri bat ekariko du.

EHZ, 2011an, Lagunarte konpaniarekin elkarlanean arituko da. Konpainia horrek 100 pertsona biltzen dituen sorkuntza ibiltari bati buruz lanean ari da. Dantzari, artista, laguntzaile, festibalari,... denak deituak dira festibalean parte hartzeko artista gisa!

Sormen Grafikoa: Irudimenaren mugetatik'at

Ez baita beti erres mezuak, ideiak, posizioak, ... pasaraztea; EHZk arte bisualen inguruan lan egin nahi du. Street art eta arte grfiko aldarrikatzaileetatik inspiratua, elkarteak parte hartzeko dei bat luzatzen du festibalari lotuak diren bisualan sortzeko. Argazki, marrazki, muntai ikonografikoak,... Denak deituak dira EHZri bidaltzeko norberak "EHZ,Mugetatik'at" lemaren inguruan edo elkarteak defendatzen dituen baloreen inguruan egindako sorkuntza grafikoak. Errezibitutako sorkuntza guziak erakutsiak izanen dira eta hautaturiko selekzio bat erabilia izanen da autorearen baimenarekin soporte desberdinetan (afitxa, pegatina, jantzi,...).

2011an, sekulan baino gehiago, festibalariak haien gertakariaren aktore izanen dira eta proiektua sekulan baino gehiago kolektiboa eta idekia izanen da. Betidanik, laguntzaileek dute EHZ moldatu dagoen bezala. 16garren edizioa ez da ohitura hortaz urrunduko.

Gertakari handien itxaropenean (EHrZ lehiaketaren finala, Elektrotasuna 4 eta Festibala), EHZk proposatzen du inplikatzea aktore izaiteko gisan eta ez murgiltzeko bestaren kontsumitzean. Desmartxa hori proiektua eramaten eta 2010eko tenpestaren ondotik sustengatu duten jendeen eskertzeko modu bat da

Berrikuntza:
Aintzin salmenta aurreratua.
Aurten, EHZk ere beherapenak egiten ditu ; festibalari bizkorrenek lortzen ahalko dute 3 egunetako txartela "PROMO" Pass, 2011ko otsailaren **14etik goiti 40€tan**, EHZren webgunean (1000 txarteletan mugatua!).

Ikus arte www.ehz-festibala.com helbidean.

EHZ-ko lan taldea



1. deia : EHRZ lehiaketa

EHZk gonbidatzen ditu Eukal Herriko gazte artista, musikari eta taldeak EHrZ lehiaketaren 2011ko edizioan parte hartzera !

Ate bat festibaleruntz...

2010eko edizioaren arrakastaren ondotik (Euskal Herriko 7 probintzietatik 69 talde hurbildu ziren), EHZk musika lehiaketaren ale berria idekitzen du. Gertakari honen bidez, euskal talde bakoitzari, festibalera zuzenean joateko aukera eskaintzen zaie.

Lehiaketa 4 pundutan

1. Otsailaren 23a aintzin, izen emaiteak elkartearen egoitzan
2. Bidalitako dokumentuen arabera, EHZ epai mahiak 12 musika talde atxikiko ditu.
3. Hiru finalisten selekzioa eta apirilaren 1ean "kontzertu lehia"
4. Txapeldunak EHZ festibalean jotzen du eta ondotik Donostiako Aste Nagusian.

Hitza publikoari...

Azken 12 taldeen selekzioa aurkeztu ondotik EHZ- ren webgunean, publikoak bozkatzen ahalko du gehien maite duen taldearentzat finalean izan dadin.
Apirilaren 1eko epai mahaia festibaleko programazioaren komisioaren kideez eta musika arloko profesionalez osatua izanen da.

Talentu berrien bila...

EHrZk talde berrien eta publikoaren arteko harribat sortu nahi du, kontzertu gela profesional batean jotzeko parada eskainiz garapen dinamikan diren musikariei.

Hiru azken hamarkadetan, musika garai ezberdinek moldatu dute Euskal Herriko musika eszena, eta talde zonbaitbatzuk haien garaia markatu dute : Kortatu, Su ta Gar edo Negu Gorriak 80-90 urteetan ; Berri Txarrak, Ken 7 edo berrikitan We are Standard 2000 urteentzat.

Musikaren mundua etengabe mugitzen da. Urtez urte, talde berriak agertzen dira baina askotan haien muturra erakusteko aukerak arraroak dira. Lehiaketaren bidez, taldeek Euskal Herriko eszenan lehen pausu baten egiteko parada dute.

Nola parte hartu

Lehiaketaren arau eta baldintzei buruzko informazio guziak eskuragarri dira gure webgunean:
http://www.ehz-festibala.com

2. deia : SORGIN proiektua

Artista, dantzari, antzerkilari, musikari, laguntzaile ala festibalari zira : parte har ezazu Sorgin proiektuan ! Zure sentikortasun artistikoa nahi duzu garatu ala maitemindu bat xekatzen duzu : « Sorgin » zuretzat egina da ! Mugi zaitez eta eraiki zure EHZ !

Zer da “Sorgin” ?

« SORTU ! » : Bultzatu sorkuntza proiektuak Euskal Herrian

2011an, EHZk “Sorgin” programa planteatzen du. Proiektu berri horrekin, EHZk bere aktibitateari garapen berri bat ekartzen dio. Helburua, tokiko artista eta kolektiboen (profesional ala ez) sustengatzea da, horietariko bati sorkuntza berezi bat egitea proposatuz. Urtero, proiektu deialdi bat luzatua izanen da urria hastapenean. Ondotik, deialdiari erantzun dutenen artean (artista, konpainia, elkarte...), EHZk, proiektua eramanen duena hautatzen du.

« EGIN ! » : Festibalari eta laguntzaileak festibalaren aktore bilakarazi

SORGIN tresna nagusi bat da festibalarien eta laguntzaileen artean dinamika baten sortzeko, festibalaren baitan zein inguruan. Proiektu partehartzaile eta ideki horren bidez, norberak bere arima artistikoa askatzen ahalko du edo topaketa berri eta hunkigarriak bizi.

Informazio gehiagorentzat

http://www.ehz-festibala.com/eu/sorgin.html

Aurten

Lagunarte konpainia, lehen sorkuntza eramaile

2011 urtearentzat, Lekuineko Lagunarte konpainiak du proiektua eramanen. Honek, ikusgarri berezi bat proposatuko du. Forma ibiltarian oinarritua, musika, antzerkia eta dantza nahasiko ditu. Lagunarte konpainiak, sorkuntzaren planteatzeko, “Mugetatik’at” lemaren eta elkarteak defendatzen dituen baloreen inguruan oinarrituko da : eukararen promozioa, baztertze guzien aurkako aldarrikapena, eskubide zibil eta politikoen aldeko borroka, etab.

Festibeletik haratago

Ikuskizuna festibal garaian aurkeztua izanen da lehen aldikotz, baina beste tokietan hedatzea aintzin pentsatua da.
Helburua da dinamika bat sortzea proiektuaren inguruan eta sorkuntza biziaraztea festibalaren “mugetatik’at.”
SORGIN proiektuaren ispirituak elkartearen idekitze eta garapen gogoekin bat egiten du.

Beraz, bilatzen dugu...

100 partehartzaile

2011ko sorkuntzak beharko ditu gutti gora behera 100 parte hartzaile eta profila desberdin asko. Bakoitzak bere lekua atxeman dezake proiektu hortan.

Izen emaiteak

Helbidea : EHZ Elkartea – Bât. Ary, place du fronton – 64240 Hazparne
Helbide elektronikoa : kontakt@festival-ehz.com
Telefonoa : 05.59.70.20.08.

3. deia: Sorkuntza grafikoak

Grafista, argazkilari edo marrazkilaria zira? Profesionala ala zaletua? Artista ala justu inspiratua? Sor ezazu dokumentu bisual bat eta bidali EHZri.

Printzipioa :

EHZk dei zabal bat luzatzen du gaurko eta biharko EHZren aktibitatea irudikatuko duten bisualen sortzeko. Zuenganatu 2011ko lema (Mugetatik'at – Au-delà des frontières) eta idei azkarrei lotutako bisualak sor itzazkizue.

Gaia :

Sorkuntzak bi ardatz nagusitan oinarritu behar dira :

> **2011 Lema : « Mugetatik'at ! » (= Au-delà des frontières). « Muga » zentzu zabalean: politikoa, administratiboa, kulturala, sinbolikoa, belaunaldietakoa, soziala, geografikoa, ekonomikoa, mentala...**

eta/edo,

> **EHZren balore eta printzipioak : euskara, kontrakultura, internazionalismoa, baztertze guzien kontra (arrazakeria, homofobia, sexismoa), eskubide zibil eta politikoak, justizia soziala, aniztasun kulturala, ekologia, antikapitalismoa, askatasun sexuala...**

Agertarazi beharreko elementuak :

Askea. Betebehar berezirik ez.
Testu zati bat agertarazi daiteke.
Logo, typo, foto, ... berreskuratzeko, EHZ kontaktatu.

Itzultzeko baldintzak:

2011ko martxoaren 11a aintzin.
Dokumentu numerikoa jpg edo pdf formatuan.
Gehitu izen-deitura-pseudo eta izenburua.

Sorkuntza mota :

Bisuala den guzia : Marrazki, argazki, sorkuntza numeriko, irudi desbideratu, muntaketa ikonografikoa, ...

Deklinabideak :

Errezibitutako sorkuntza guziak ikusgarri izanen dira erakusketa ibiltari batean eta 2011an EHZk antolatzen dituen hitzordu nagusi guzietan (Festibala, EHrZ Lehiaketa, Elektrotasuna).
Sorkuntza horietatik batzuk, afitxetan, pegatinetan, postaletan, jantzi ala beste moduko erabiliko lirateke, sortzailearen adosturik.

Tonua :

Askea : seriosa, irringarria, trash, artistikoa, anti-konformista, ...

Baldintzak :

EHZ-k, artistarekin adosturik, sorkuntza ezberdinen erabiltzeko parada ukanen du
EHZ engañatzen da obra bakoitzeko autorearen izena agertaraztea
Norberak nahi duen obra koporua bidaltzen ahal du
Parte hartzaile guziak lehen erakustaldirako gonbidatuak izanen dira

Nori bidali :

Helbidea : EHZ Elkartea – Bât. Ary, place du fronton – 64240 Hazparne
Mezu elektronikoa : kontakt@festival-ehz.com
Telefonoa : 05.59.70.20.08.

Kontaktu guziak:

Orokorra:
Eneko GORRI: [+33] (0)6.77.82.20.20
Antton LANNES: [+33] (0)658.40.19.91
Izarne MOLINA: [+33] (0)674.99.26.77

EHrZ lehiaketa:
Laetitia LEGLISE: [+33] (0)6.58.47.76.71

Sorgin:
Maika LAPOUBLE: [+33] (0)6.15.55.11.61

Sorkuntza grafikoak:
Eneko GORRI: [+33] (0)6.77.82.20.20

*Hegoaldetik deitzeko parentesiarteko zeroa kendu